



LAIN Tximeletak



Lain taldea 2008an eratu zuten Villabonan (Gipuzkoa) bost nerabek, bi neska zituzten abeslari (Leire eta Kristina) eta horrek markatu zuen taldea. Ahotsak zirela medio, laster egin zizkieten alderaketak estatuko talde ezagunekin. YouTubeen Lor taldearen "Zure doinua" abestiaren bertsioa eskegi ondoren milaka eta milaka ikustaldi izan zituen segituan. Lain taldearen igoera zitu bizian gertatu zen. Agertoki askora igo ziren, 2009an Gaztea maketa saria irabazi zuten, BBK Live Jaialdian jo. Lain taldeak orain arte bi disko kaleratu ditu ("Lain" 2009an eta "Leihoak" 2011n). Oso melodikoa da Lain taldearen musika pop eta rock oinarriekin lagunduta. Bi nesken ahotsak berehala egiten dira gustagarri. 2015ean taldearen metamorfosisa ikusiko dugu disko berriarekin.

Lain taldearen hirugarren diskoa 2015eko martxoan eta apirilaren grabatu, nahastu eta ekoizpena egin du Eñaut Gaztañagak Zestoako Gaztain estudioan. Masterizazioa Estanis Elorzak egin du Donostiako Doctor Master estudioan. Diskoak laguntzaile hauek izan ditu: Natalia Garmendia (ahotsa), Jon Arruabarrena (saxoa), Felipe Murillo (biolina), Nerea Lasaga (biolontxelo) eta Xabier B. Leturia (perkusioa). Diseinua eta argazkiak Josu Torrealdayk egin ditu.

Lain taldearen hirugarren diskoak "Tximeletak" du izenburua. Lain taldeak rock esparrura jo du gero eta gehiago, doinu biziagoekin jolastuz, gogorragoekin, abesti kementsuagoak sortuz baina melodien ezaugarria galdu gabe. Sorgintzen segituko dute bi nesken ahotsek, jendea liluratuz. Lain taldean metaforfosisa gertatu da baina oraindik aurreko garaiko uneak antzemangarriak dira, trantsiziozko kantuek ere badira. Ez da dena berria, baina bai biribila eta polita. Lain, dagoeneko, ez da hain gazte.

TXIMELETAK

Lain taldearen aldaketa adierazten duen abestia da. Lain taldearen metaformosia. Nahiz eta doinu leunak mantentzen diren, doinu gogorrago eta indartsuagoekin tartekatzen dira, musikalki aldaketa nabaria ekarriz. Lain taldearen historia laburbilduko du, tximeleten modura, larba izan ondoren (gazteagoak, inkontzienteak) taldea kapuluan sartu eta gero, nahiz eta hiru urte igaro kapulu horren barnean izateak zerbaiterako balio izan du. Lain taldea orain tximeletak dira, aske hegal eginez eta nahi dutenen azala laztanduz taldeak benetan maite duen musikarekin.

AIREAN MUGITZEN DA

Abesti honek nostalgia iradoki du, Imanol Urkola taldekide ohiak sorturiko kantu ederra da eta oilo ipurdia sortarazten duenarikoa. Askotan galduak sentitzen gara gure bizitzako une jakin batzuetan, baina gogorarazi nahi digu maite ditugunak eta maite gaituztenak ondoan ditugula eta bertan egongo direla behar ditugunean.

IRUDIAK

Zirraraz beteriko kantua, entzulea segituan harrapatzen duenarikoa, single nortasun petoa dauka. Freskotasuna darama melodian eta Lain taldearen aurreko musika estilotik berrirako trantsizioa markatzen du. Era desberdin askotara uler daiteken abestia da, "ez dut ikusi nahi nire irudia zurearen alboan" leloa etengabe errepikatzen da, maitasun kontu baten amaiera badirudi ere, ez da hori adierazi nahi. Maiz norberak bere buruaren irudia ez du onartzen eta norberaren buruarekin borrokan bizi da; borroka hori islatzen du abestiak hasieratik amaierara.

ORAINA MARRATUZ

Taldean adostasuna dago, "Oraina" abestiak hunkituta uzten ditu. Lelo itsaskorra du, "oraina marraztuaz zurekin" eta maite diren bi lagun, maitale, ama-eme, ama-ala-ba... elkar maite duten edozein pertsonen pasarteak kontatzen du.

DEBEKATUTA

Diskoko abestirik bereziena da, edo desberdinena. Abesteko garaian izugarritzko indarra du. Sarri debekatzen digute gu geu izatea, baina horrek ez garamatza zoriontasun bide-
ra, beraz izan gaitzen egiazko eta benetakoa.

BI EZPAIN

Emakumea eta sexualitatea errebinkatzea du diskoko abesti rockeroenak. Jolasak irribarre bertikalean.

IZAN GAITEZEN SORGIN

Diskoko abestirik indartsuenarikoa da. Emakumeok "izan gaitzen sorgin printzesak beharrean". Beti zapaldua, haurra, urdanga, sorgin zein printzesa izan. Eguneroko borrokan eguneroko arauak astintzen.

IRITSIKO DA EGUNA

Lain taldearen aurreko bi diskoetara gehien hurbilduko den abestia da. Etxetik kanpo dagoen lagun bati idatzitako abestia, eta ondorioz sentimenduz beterikoa. Saxoaren soinuek jazz kutsua emango diote abesti sentimental honi.

SOINEKO ILUNA

Bi pertsonen arteko gatazka. Esaldiak dio ez dagoela ikusi nahi ez duena baino itsuagorik. Beste abesti indartsu eta trinkoa.

NEGAR EGINGO DUGU

Abestirik intimoena da, eta instrumentazio gutxikoa. Kristina eta Leireri benetan gertaturiko historia da. Behin Baionan abesten zeudela emanaldi akustikoko batean, amaieran gizon bat gerturatu zitzaizen paper bat utziz eskuan, eta hitzik esan gabe alde egin zuen. Poema kaxkar bat zen, urteetan askatu ezin izan zituen malkoak bota zituela Lainen abestierekin, "negar egingo dugu lasaitzeko bederen" zihoen, eta idatziarekin eurei ere malkoak zerizkien.

MASKARADEN JOKOA

Bi zati ditu; lehena pop-rocka lelo itsagarriarekin, eta bigarrena zati espirituala. Mezu nagusia da moztortuak bizi garela, egunero moztorro bat jantzi ohi dugu beste bat kentzeko. Lain taldeak barrenak husten ditu abestiaren azken zatian, artaldearen atzetik joan dira beti, baina ueña iritsi da esateko ardi beltzak izan badira ere, ez diela axola.

ritxi aizpuru (2015eko apirilaren 29a)

Leire Berasaluze: ahotsa

Kristina Aranzabe: ahotsa

Javi Rivero: baxua

Jon Altuna: bateria

Joseba De Arriba: gitarra elektrikoa eta akustikoa

Mikel Benito: gitarra elektrikoa

facebook.com/laintaldea

instagram.com/laintaldea

twitter.com/laintaldea

Kontratazioa: baga-biga telf. 618 072 076-026

Elkarrizketak: 690 70 42 55 (ritxi)



telf. 618 072 076-026

www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus